

# MENDITXIKI-ARABA

## MUELA



### TESTU ETA ARGAZKIAK



**Mikel Arrizabalaga**  
(Donostia-Eibar, 1957)

Egunkaria, Berria eta Gara egunkarietan, Pyrenaica, Euskal Herria eta Nora aldizkarietan eta Euskadi Irratian mendiarekin zerkusia duten makina bat artikulu eta kolaborazio egin ditu. Euskal Herriko mendietan ez ezik, Pirinioak, Alpeak, Atlas eta Himalaiako mendietan ibilia da.



### Muelatik La Casillako lepora jaisten

## IZKI

Iturrietako eta Gasteizko mendiek, Lokiz, Kodes eta Toloño mendizerrekin batera, Izkiko Parke Naturala inguratu eta gorde egiten dute. Bertan, Ega ibaian bere urak isurtzen dituen Izki erreka inguruan garaiera txikiko baina oso malkartsuak diren gailurrak goititzen dira: Muela, Soila, San Cristobal, San Justi... Hauen magalean, Arabako urkidirik garrantzitsuenak (Llaurtako Urkidia) eta haritz kandudun basoa aurkituko ditugu. Gorosti, elorri zuri eta ipuruak haritzekin batera ikusiko ditugu, baina altuera hartzen dugun heinean, pagadiak agertuko zaizkigu toki laiotzetan, leku harritsueta artea eta kare-harrizko lurretan, berriz, erka-metza eta ezpela. Bere hedadura eta kontserbazio egoeragatik, Europan dagoen ametz-basorik (Quercus pyrenaica) nabarmenetako bat aurkituko dugu Izkiko parajeetan, hau baita bere altxorrik preziatuena.

Landaretza honek fauna aberatsa gordezten du bere baitan. Ugaztunen artean aipagarrienak, basurdea, azeria, azkonarra, muxarra eta jineta ditugu eta, hegaztien artean, berriz, miru gorria, hontza handia, urubia eta zapelatz arrunta. Errekastoen ibilguetako anfibiorik ikusteko aukera ere bada, besteak beste, uhandrea, sugandila bizierrulea eta apo pintatu iberiarra.

## MUELA

Durruma Kanpezu herritik abiatuko gara, bere hormetan eskegita dituzten etxe eta elizaren ondotik ateratzen den bidetik hain zuzen ere. Porlanezko bidea utzi eta nabarmena den xendatik abiatuko gara maldan gora. Bide erosoak, karaitzezko bi tontorren artean (Muela eta Peña del Santo) zabalitzen den La Casilla lepora eramango gaitu eta bertatik marrazten den xendan barrena, erraz helduko gara Mue-

lako tontorrera. Ohiko erpin geodesikoa eta Gasteizko Iradier Mendizale Elkarteak aspaldi jarritako gutunontzia aurkituko ditugu bertan. Eseri, zintzurra freskatu, mokadu bat jan eta mendi honek eskaintzen duen ikuspegiari begira jarriko gara: Hegoalderantz begiratu gero, Toloño mendizerrako Lapoblacion, Peña Alta, San Tirso, Cruz del Castillo eta Palomares mendiak, denak ilaran harresi luze eta gaindiezin bat bailitz. Hego-ekialderantz Kodesko Joar eta Costalera. Iparralderantz, berriz, Izkiko Soila, San Gregorio eta San Justi. Ekialdean Lokiz mendizerra eta Gasteizko mendiak mendealdean. Hauen guztien magalean baso eder ugari.

Ikuspegi eder honetaz gozatu ostean, atzera joko dugu harriztan barrena eta, ohiko bidetik jaitsiz La Casilla lepora itzuliko gara. Hona heldzean, zirkulu hori bat duten egurrezko hesolak ikusiko ditugu. Hauek, Korres herritik abiatzen den ibilaldi gidatu bati dagozkie eta guk horiek jarraituko ditugu Santuaren harraitzeko hormatzarretan ezkututako kobazulora iritsi arte. San Romango ermita-kobak bost bat metroko ahoa du sarreran eta hamabost metro inguruko hondoa du. Barruan al daretxo bat ikusiko dugu eta honen gainean San Romanen irudia, ezkerreko eskuan liburu bat eta eskuinekoan palmondoa dituelarik. Ez dago barruan sartzerik, burdinazko hesi batek pasoa galarazten baitu. Peña del Santoren tontorrera zuzentzen den bidea gure eskuinera utziz, herriraino jaisten den hartuko dugu.

LUZERA: 3,5 KM | DESNIBELA: 262 M



Muelako tontorra